DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Lehendakaritza
Presidencia

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481000 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

DONOSTIAKO UDALAREN ZUZENTASUN BATZORDEAREN URTEKO MEMORIA

**Testuingurua**

Memoria honen xedea da Donostiako Udaleko Zuzentasun Batzordearen 2023ko jardueraren berri ematea.

Organo hori ex profeso sortu zen 2022ko martxoaren 15ean, *Next Generation* Europako Funtsak Kudeatzeko Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren esparruan, eta autonomia funtzional osoa eta irauteko bokazio argia eman zitzaion.

Batzordearen helburua da Europako funtsak kudeatzeko prozesuetan parte hartzen duten arduradunek, kudeatzaileek edo langileek bere egin behar dituzten balio etikoak eta kudeaketa onaren printzipioak zaintzea, finantza-kudeaketa onaren printzipioa bermatzeko eta prozedura horietan Europar Batasunak dituen finantza-interesak zaintzeko. Halaber, Batzordea da aipatutako planarekin batera onartu zen Integritate Protokoloa betetzearen azken bermatzailea. Protokolo horren 13.8 atalak xedatzen duenez, Batzordeak memoria bat egingo du urtero, eta horren berri emango dio Gobernu Batzarrari.

**I.- Donostiako Udalaren Zuzentasun Batzordearen osaera**

Batzordeak kide hauek ditu:

Lehendakaria:

Manu Narváez Morales, Lehendakaritzako Zuzendaritzaren titularra.

Batzordekidea: Aitor Ibisate Aguirre, Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuaren arduradun kudeatzailea.

Batzordekidea: Laida San Sebastián Larzabal, organoaren kanpoko kidea.

Idazkaritza: Mikel Albizu Huegun, hitzarekin, baina botorik gabe. Kargua Irune Larrea Sistiagak bete zuen 2024ko martxoaren 5era arte.

**II. Egindako bilerak**

2023an, bilera hau egin zen:

2023ko abenduaren 19ko saioa:

1.- 2022ko azaroaren 21eko bilkuraren akta irakurri

MEMORIA ANUAL DE LA COMISIÓN DE INTEGRIDAD DEL AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

**Contextualización**

Es objeto de la presente memoria dar cuenta de la actividad de la Comisión de Integridad del Ayuntamiento de San Sebastián correspondiente al año 2023.

Este órgano nace ex profeso el 15 de marzo de 2022 en el marco del Plan de Medidas Antifraude para la Gestión de Fondos Europeos *Next Generation*, y se le dota de plena autonomía funcional y clara vocación de permanencia.

La Comisión tiene como fines velar por los valores éticos, así como los principios de buena gestión, que deben adoptar las personas responsables, gestoras o personal que intervenga en los procesos de gestión de fondos europeos, al objeto de garantizar el principio de buena gestión financiera y preservar los intereses financieros de la Unión Europea en tales procedimientos. La Comisión es asimismo último garante del cumplimiento del Protocolo de Integridad que se aprobó conjuntamente con el citado Plan. El apartado 13.8 de dicho Protocolo establece que la Comisión elaborará una Memoria anual de la que dará cuenta a la Junta de Gobierno Local.

**I.- Composición de la Comisión de Integridad del Ayuntamiento de San Sebastián**

La Comisión cuenta con los siguientes miembros:

Presidencia:

D. Manu Narváez Morales, titular de la Dirección de Presidencia.

Vocal: D. Aitor Ibisate Aguirre, responsable del Servicio de Prevención de Riesgos Laborales.

Vocal: Dª. Laida San Sebastián Larzabal, integrante externa del órgano.

Secretaría: D. Mikel Albizu Huegun, con voz, pero sin voto. El cargo fue ocupado por Dª Irune Larrea Sistiaga hasta el 5 de marzo de 2024.

**II. Reuniones celebradas**

Durante el año 2023 se celebró la siguiente reunión:

Sesión de 19 de diciembre de 2023:

1.- Lectura y aprobación del acta de la sesión de 21 de

eta, ontzat joz gero, onartzea. Aho batez onetsia.

2.- Aurkeztutako kontsultak eta salaketak aztertzea eta ebaztea.

2023ko ekainaren 26an, bi salaketa jaso ziren Donostiako Udalaren salaketa-kanalaren bidez. Biak, pertsona berak egin zituen. Aditzera ematen zuen laneko jazarpenaren biktima zela, eta laneko arriskuen prebentzioaren arloko arau-hauste batzuk salatzen zituen.

Zuzentasun Batzordeak gertakariak aztertu eta beharrezko datuak bildu ondoren, ondorioztatzen da salaketak udal organo eskudunek ezagutzen dituzten antolamendu-izaerako gaiei egiten diela erreferentzia, eta ulertzen da salatutakoa ez dela, inola ere, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko lan-zuzenbidearen arau-hauste bat, hori izanik organo honen eskumen-eremua.

3.- Galderak eta eskeak.

**III.- Integritate instituzionaleko sistema**

Zuzentasun Batzordea Donostiako Udalaren Integritate Instituzionaleko Sistema hasi da diseinatzen 2023an.

Sistema horren helburua da integritatearen eta gobernu onaren estrategia bat ezartzea, funtzio publikoaren eta kudeaketa publikoan jardunbide egokiak gauzatzearen balioa azpimarratzeko, eta, azkenean, herritarrek jasotzen dituzten zerbitzuak hobeak izan daitezen.

Azken batean, helburua da gure erakundearen azpiegitura etikoa indartzea, indarrean dagoen araudia betetzetik harago joan daitekeen eta joan behar duen integritate-politika bat bultzatuz, eta integritate instituzionaleko esparru bat eraikitzeko eta integratzeko pausu irmoak emanez.

Sistema balio eta printzipio multzo baten bidez egituratuko da, etika eta jokabide kode batzuetan (lau kode, hain zuzen) multzokatuta, eremu bikoitz batetik: subjektiboa (alde batetik, hautetsiei eta, bestetik, enplegatu publikoei aplikatuko zaie) eta materiala (kontratazio-espedienteak eta dirulaguntza publikoak).
Sistemaren oinarri izango diren balioak honako hauek dira:

- Integritatea
- Eredugarritasuna
- Zintzotasuna eta eskuzabaltasuna
- Objektibotasuna
- Profesionaltasuna
- Eraginkortasuna

noviembre de 2022. Se aprueba por unanimidad.

2.- Examen y toma de decisión de las consultas y denuncias presentadas.

Se da cuenta de dos denuncias recibidas el 26 de junio de 2023 a través del canal de las denuncias del Ayuntamiento de San Sebastián, por parte de la misma persona, en las que declaraba ser víctima de acoso laboral y denunciaba una serie de infracciones en materia de prevención de riesgos laborales.

Una vez analizados los hechos y recabados los datos correspondientes por la Comisión de Integridad, se concluye que la denuncia hace referencia a cuestiones de carácter organizativo, conocidas por los órganos municipales competentes, y se entiende que en ningún caso se trata de una infracción del derecho laboral en materia de seguridad y salud en el trabajo que es el ámbito de competencia de este órgano.

3.- Ruegos y preguntas.

**III.- Sistema de integridad institucional**

La Comisión de integridad ha puesto en marcha en 2023 el diseño del Sistema de Integridad Institucional del Ayuntamiento de San Sebastián.

La finalidad de dicho sistema es implantar una estrategia de integridad y buen gobierno que ponga en valor la función pública y el desarrollo de buenas prácticas en la gestión pública, que redunden en última instancia en beneficio de los servicios que recibe la ciudadanía.

Se trata al fin y al cabo de reforzar la infraestructura ética de nuestra institución por medio del impulso de una política de integridad que puede y debe trascender del mero cumplimiento de normativa vigente, debiéndose dar pasos decididos hacia la construcción e integración de un marco de integridad institucional.

El sistema se articulará a través de un conjunto de valores y principios agrupados en cuatro códigos éticos y de conducta desde un doble ámbito subjetivo (aplicación a cargos electos por un lado y empleados públicos por otro) y material (expedientes de contratación y subvenciones públicas).
Los valores que fundamentarán el sistema son los siguientes:

- Integridad
- Ejemplaridad
- Honestidad y desinterés
- Objetividad
- Profesionalidad
- Eficiencia

- Bizikidetza eta errespetua

Zuzentasun Batzordearen babespean, kode horiek egiteko lanei ekin zaie.

Integritate Instituzionaleko Sistema aterki moduko bat izango da, kode horiek eta haietan ezartzen diren estandar etiko altuak betetzen lagunduko duena.

Zuzentasun Batzordeak zaindu beharko du kodeen balioak, printzipioak eta jokabide eta jarduera arauak betetzen direla, behin kodeak onartu eta gero.

**IV.- Salaketa-kanala**

2022an, Donostiako Udalak salaketa-kanal bat sortu zuen, *Next Generation* Europako Funtsak Kudeatzeko Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren esparruan.

2023ko otsailaren 20ko 2/2023 Legea, arau-urratzeei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena, indarrean jartzearen ondorioz, 2023an salaketa-kanal hori erregulazio-eskakizun berrietara egokitu zen, batzorde honen bultzadarekin.

Barneko informazio-sistema berria ezartzeko proposamenak aztertu eta gero, Donostiako Udalak iritzi zion Navexen WhistleB sistema aukerarik egokiena dela arau-hausteen, jokabide bidegabeen eta jardunbide okerren arriskua murrizteko, eta, era berean, salatzailearen konfidentzialtasuna eta anonimotasuna bermatzeko. Donostiako Udalak gonbidatuta, iaz kanal horretara atxikitzea erabaki zuten menpeko udal erakunde hauek:

- DonostiaTIK
- Etxegintza
- Donostia Kultura
- Donostia Kirola
- Musika eta Dantza Eskola
- Donostia Sustapena
- Dbus
- Eguzkitza SA
- San Sebastián Turismoa
- Anoeta Kiroldegia SA
- Polloe
- Victoria Eugenia SA
- San Telmo Museoa SA
- Sociedad del Balneario La Perla del Océano SL

- Convivencia y respeto

Bajo el auspicio de la Comisión de Integridad se han iniciado los trabajos de elaboración de dichos códigos.

El Sistema de Integridad Institucional supondrá una suerte de paraguas que ampare el cumplimiento de dichos códigos y los altos estándares éticos que en ellos se establecen.

La Comisión de Integridad deberá velar por el cumplimiento de valores, principios y normas de conducta y actuación de los códigos, una vez aprobados.

**IV.- Canal de denuncias**

En 2022 el Ayuntamiento de San Sebastián instituyó un canal de denuncias en el marco del citado Plan de Medidas Antifraude para la Gestión de Fondos Europeos *Next Generation.*

A resultas de la entrada en vigor de la Ley 2/2023, de 20 de febrero, reguladora de la protección de las personas que informen sobre infracciones normativas y de lucha contra la corrupción, durante el 2023 dicho canal de denuncias fue objeto de adaptación a las nuevas exigencias regulatorias bajo el impulso de esta comisión.

Analizadas las diferentes propuestas para implementar el nuevo sistema interno de información, el Ayuntamiento de San Sebastián consideró que el sistema WhistleB de Navex, es la opción más adecuada para minimizar el riesgo de infracciones, conductas indebidas y malas prácticas, garantizándose asimismo la confidencialidad y el anonimato del denunciante. Invitadas por el Ayuntamiento de San Sebastián, las siguientes entidades municipales dependientes acordaron el año pasado su adhesión a dicho canal:

- DonostiaTIK
- Etxegintza
- Donostia Kultura
- Donostia Kirola
- Escuela de Música y Danza
- Fomento San Sebastián
- Dbus
- Eguzkitza S.A.
- San Sebastián Turismo
- Anoeta Kiroldegia S.A.
- Polloe
- Victoria Eugenia S.A.
- Museo San Telmo S.A.
- Sociedad del Balneario La Perla del Océano, S.L.

Navexen WhistleB sistema Gipuzkoako Foru Aldundiak duen tresna bada ere, iaz erakunde horrek esparru-akordio baten kontratazio-espedientea hasi zuen salaketa anonimoen kanal bat gaitzeko. Donostiako Udaleko Gobernu Batzarrak, 2023ko irailaren 26an, erabaki zuen foru-kontratazioaren espediente horri atxikitzea. Gaur egun, lizitazioa izapidetzen ari da, eta jasotako eskaintzak aztertzen ari dira. Kontratua laster formalizatzea espero da.

Aunque el sistema WhistleB de Navex es a su vez la herramienta de la que dispone la Diputación Foral de Gipuzkoa, el año pasado esta institución inició expediente de contratación de un acuerdo marco para habilitar un canal de denuncias anónimas. La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de San Sebastián acordó con fecha 26 de septiembre de 2023 su adhesión al mencionado expediente de contratación foral. En la actualidad la licitación se encuentra en tramitación, analizándose las diferentes ofertas recibidas y se espera que pueda formalizarse el contrato próximamente.

2023an, Donostiako Udalak 38 salaketa jaso zituen barneko informazio-sistema berriaren bidez. Gehien-gehienetan (35), argi eta garbi Integrazio Batzordearen eskumen-eremutik kanpo zeuden gertaerak salatzen ziren, esate baterako: aparkaleku-plazen erabilera okerra, udal lorategien egoera, erroldatze irregularrak, eta abar.

Durante el 2023 el Ayuntamiento de San Sebastián recibió 38 denuncias a través del nuevo sistema interno de información. En la inmensa mayoría, 35 de ellas, se denunciaban hechos manifiestamente fuera del ámbito de competencia de la Comisión de Integridad, a saber: uso indebido de plazas de parking, estado de los jardines municipales, empadronamientos irregulares etc.

Zuzentasun Batzordeak iritzi zion salaketa horietatik 3 bakarrik sartzen zirela bere eskumen-esparruan:

- Horietako bi salatzaile berak aurkeztu zituen, eta, esan bezala, ezetsi egin ziren, antolaketa-kontuak zirelako, eta, inola ere ez, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko lan-zuzenbidearen arau-hausteak.
- Hirugarren salaketan, beharrezko informazioa eskatu zitzaion udal-zerbitzu egokiari, eta aztertu ondoren, 2024an, Zuzentasun Batzordeak erabaki du salatutako jarduketa zuzenbidearen araberakoa izan zela.

La Comisión de Integridad consideró que únicamente 3 de las denuncias podrían circunscribirse a su esfera competencial:

- Dos de ellas fueron remitidas por el mismo denunciante, y tal como se ha mencionado fueron desestimadas al tratarse de cuestiones de carácter organizativo y en ningún caso de una infracción del derecho laboral en materia de seguridad y salud en el trabajo.
- En la tercera denuncia, se solicitó la información pertinente al correspondiente servicio municipal, y tras su análisis, ya en 2024, la Comisión de Integridad ha resuelto que la actuación denunciada fue conforme a derecho.

Aurreko guztiak osatzen du Donostiako Udaleko Zuzentasun Batzordearen 2023ko Memoria.

Con todo lo expuesto queda redactada la Memoria de la Comisión de Integridad del Ayuntamiento de San Sebastián correspondiente al año 2023.

Donostian, sinaduraren egunean

En San Sebastián a la fecha de firma

Lehendakaria / Presidente

Manu Narváez Morales

Idazkaria / Secretario

Mikel Albizu Huegun

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Mikel Albizu Huegun (26/05/2025 12:38 CEST), Manu Narvaez (26/05/2025 12:55 CEST)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : 613T-0Y0H-93QD-8XSS